

Tularemia kasu bat atzeman du Osakidetzak Gipuzkoan

■ *Gaztelan ehizatutako erbi bat esku artean erabilia hartu zuen gaitza aretxabaletar batek*

Erredakzioa/Donostia

OSAKIDETZA-K tularemia kasu bat atzeman du Gipuzkoan, Aretxabaletan zehazki. Bertako kazetari batek Gaztela-Leonen ehizatutako erbiak erabili zituen esku artean eta orduantxe hartu zuen gaitza.

Gaixotasun hau gripe ohi-koarekin nahasi ohi da maiz, sukar handia eta bat-batekoa eragiten baitu. Normalean, mendiko untxi eta erbiek izaten dute tularemia, karraskari eta akainen moduko beste parasito batzuen bidez hartua. Aste honetan Gaztela-Leon inguruan gaixotasun horren sintomak dituzten ehun lagun ingururen berri izan dute, eta jakinaren gainean jarri dituzte inguruko erkidegoak, Gaztelako probintzietan ehizan ibili direnak ohartaraz ditzaten.

Osakidetzak herenegun gauean zabaldu zuen oharra, eta atzo goizean bertan eman zuen atzemandako lehenengo kasuaren berri. Aretxabaletako ehiztariari ez zizkieten atzo arratsaldera artean egin tularemia zuen egiaztatze frogara behin-betikoak egin. Nolanahi ere, segurutzat jotzen da gaitz hori duela, Gaztelan ehizatutako untxi batzuk larrutzen aritu baitzen berriki. Osakidetzako iturriek jakinarazi zuten, Aretxabaletako ehiztaria ez dago larri eta ez dute, beraz, ospitaleratu beharrik izan.

Burgos, Palentzia, Leon, Valladolid edota Zamoran ehizatutako piezak dituztenei dei egin die Osakidetzak, osasun arduradunekin harremanetan jar daitezten. Animalia arriskutsuak ez dira zaborretara bota behar, zeren eta katu edo txakurrek usnaka horiek topatu, jan eta gaitza kutsatzatzen jarrai baitezakete. Tularemia aurre egiteko behar-beharrezkoa da animalia kutsatuak erraustea. X

Garapen Lankidetzarako Kontseiluaren gaineko dekretua otsailean onetsiko da

Erakundea 22 kidek osatuko dute guztira, eta erdiak politikariak izango dira

○ *tsailean onartuko du Eusko Jaurilaritzaren Gobernu Batzordeak Garapen Lankidetzarako Kontseiluari buruzko dekretua. Horren arabera, Kontseiluak 22 kide izango ditu: 11 politikari, eta beste 11 gobernuz kanpoko erakunde (GKE) nahiz bestelako elkarten partez.*

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

KONTSEILUAREN jarduerara arautuko duen dekretua argitaratzeko gutxi falta da. Testua hitzartuta dago, baina esku hartzen duten guztiek beste bilera bat egingo dute hilaren amaieran, prozesua burutu nahian. Otsailean, behin txosten juridikoa jasota, dekretua Eusko Jaurilaritzaren Gobernu Batzordeari bidaliko zaio, behin-betiko onepena eman diezaioten.

Kontseiluko partaidetza erabakita dago. 11 kide izango ditu alde politikoari dagokionez: Andoni Ortuzar, Kanpo Harremanetarako idazkaria, eta Josu Legarreta, Garapen Lankidetzarako zuzendaria; Eusko Jaurilaritzako Lehendakariordetza saileko Idoia Zenarruzabeitia, Koordinaziorako idazkaria, Ogasun saileko Jose Maria Iruarrizaga, Aurrekontuen eta Ekonomi Kontrolerako sailburuordea; Hezikuntza saileko Eneko Oregi sailburuordea, eta Merkataritza saileko Elisa Gonzalez sailburuordea; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioetako kide bana; Jose Antonio Rubalkaba (EAJ) Legebiltzarraren partez; eta EULELeko ordezkari bat -ziur aski Jose Angel Cuerda, Gasteizko alkatea (EAJ)-.

Politikariez gainera, beste 11 kide ariko dira: GKEetako zazpi lagun, Elizako ordezkari bat, Lanbide Heziketaren alorreko bat, kooperatibismo nahiz sektore produktiboko bat, eta, azkenik, mota bereko beste zenbait kontseilutan ez dagoena, Hirugarren Munduko ordezkaria -Kabunga izeneko irakasle zairetarra-.



Inayawango zabortegia, Filipinetan. ARTXIBOKOA

Alberto Zabala izango da GKEetako zazpi ordezkarietako bat, 0,7 Plataformako kide bezala. «Kontseilua, oinarri juridiko bezala hartuta, dezente ondo dago, baina sakoneko kontua izango da zer maniobra margen uzten diguten», esan du komunikabide honi egindako adierazpenetan. Zabala galdera zuzena da: «Praktikan zer rol utziko dio Administrazioak Kontseiluari?». Batzordeak «erangikorra» izan behar duela dio.

Inaxio Azkune Hirugarren Mundua eta Bakea-ko kidearen irudiko, Kontseiluaren erronka da «demokratikoa izatea erabakiak hartzean». Batzordea bera GKEen lorpena da, Administrazioari «aterakoa» azkenaldiko negoziaketa prozesuaren ondorioz. «Lehen ez zegoen erakunde bat eratu da, garai batean alde bakar batek hartzen baitzituen

deliberazioak, baina gaur egun bermerik ez da Kontseiluak demokratikoki jardungo duen edo ez», dio Azkunek.

Josu Legarreta Eusko Jaurilaritzako Garapen Lankidetzarako zuzendariaren esanetan, Administrazioak ez du inolako galgarik jartzeko asmorik, eta kezka nahiz zalantza guztiak lanaren bidez baztertu behar direla uste du. «Aholku Kontseilu bat da, eta zenbat eta lan gehiago elkarrekin egin orduan eta urrunago iritsiko gara», adierazi du.

GKE batzuk, ordea, kezkatu dabilta. Esaterako, Eusko Jaurilaritzaren asmoa ekimen pribatuari mesede egitea dela uste dute, eta, ildo horretan, garapen lankidetzaz baliaturik enpresa batzuen interesei lagundu nahi ote dien ohartarazi dute. Kontseiluan eztabaidatzeko gaia izango da, ziur aski.

1995eko 0,7a ez da aurtengoa. Inaxio Azkunek dioen bezala, Administrazioak ez zuen begi onez hartu 0,7a zela-eta antolatutako ekimena, tesi instituzionalen aurkako oposizio gogorra gertatu baitzen. «Orduan 0,7 operatiboa delakoa asmatu zuten, nolabaiteko tranpa izan zena, auzia apur bat mozorrotzeko», adierazi du.

0,7 operatibo hori da, ez aurrekontu osoaren gaineko %0,7ko laguntza, presupuesto osoa zorrak-eta kenduta geratzen den zati garbiaren gainekoa baizik. Horrela, Eusko Jaurilaritzaren kasuan, 1995eko %0,7a 25.000 milioi pezetako diru kopurua zen orduan Barne Produktu Gordurenaren gainean kalkulatzeko baitzen, baina 1998ko %0,7a ordea, 4.500 milioi pezeta besterik ez da -aurten aurrekontu operatiboaren arabera baita-.

Gogoeta garaia

EGUN martxan dagoen garapen lankidetzarako ereduaren behar duguna den edo ez hausnartzeko garaia da, Josu Legarretaren irudiko. Administrazioak eta gobernuz kanpoko erakundeek (GKE) bilera egin zuten asteartean, eta Legarretak galdera egin zien: «Ados gaude egun egiten ari garenerekin, edo beste eredu batera jo beharko genuke?».

Gobernuak saio bat egitea planteatu die GKEei. Guatemalako herrialde bateko garapenaren aldeko programa proposatu du, 500 milioi pezetako partidakoa. Legarretak lehen ziriborroa jaso eta erakunde bakoitzak bere proiektua aurkeztu duela dio, «baina ez da nahikoa nork berea aurkeztu eta kito, denen arteko azterketa behar baita arazo-

ak-eta ikusteko». Zuzendariaren aburuz, lan integratua beharrezkoa da garapen lankidetzaz egiten den gogoetarekin «kontsekuenteak» izan nahi izanez gero. Legarretak gogoeta eskatzen du, eta mailak bereiztea: proiektu txikiak eta garapen integratuko egitasmoak. «Une honetan, GKEen gogoeta are urrunago joan da, eta esaten dute

ez soil-soilik mikro-proiektuak edo garapen integratukoak subentzionatzeko; garapen programa osoak subentzionatzera ere jo behar dela eskatzen dute. Nire ustez, zera galdetu behar diogu gure buruari: Non gaude gu, zein mailatan? Eta zer gaitar sun dugu maila batetik bestera igarotzeko? Horixe dugu erronka», dio Legarretak. X



Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria